

Orduan, zeru gorenetik, hegalak zabal-zabalik, lurrari begiratzuz garrasi handi bat bota zuen arranoak :

☞ – Ni naiz xorien erregea!

Hara non arranoari belarri gibeletik ahots apalez solas hau heldu zitzaion :

– Ez! Ez! Ez! Ni izan naiz zu baino gorago zeruan. Ni naiz xorien erregea!

☞ **Txepetxa** zen.

Arranoa ez zen ohartu lepo gibelean gorde zitzaiola.

Haren lumei ongi loturik, zeruraino igan zen. Gisa horretan, arranoa baino gorago zen.

Ordutik, bi errege badituzte xoriek : bat handi eta azkarra, arra-

☞ noa, bestea ttipia bezain abila, txepetxa.

Txepetxa : xori arras tipia,
buztana xut-xuta beti.
Erret-pittitta.

Armand Colin argitaletxeko
Histoires et dialogues liburutik egokitua.